



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

Lehiaren Euskal Agintaritzak lehiaren aurkakotzat hartu du ondoko jokabidea: Gasteizko Udalak doako aparkamendua eskaintzea herritarrei, berak bakarrik kudeatzen dituen aparkalekuetan.

Udalak ARTIUM eta IRADIER aparkalekuak bakarrik erabili ditu doako aparkamendua eskaintzeko Erdi Aro Merkatuetan eta Gabonetako kanpainetan.

Bilbo, 2017ko martxoaren 17a

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) SEA-Arabako Enpresariak eskatutako txostena eman du. Enpresari horiek argudiatu zuten Udala era diskriminatzailean aritu zela hartutako neurriekin, aparkaleku pribatuen edo emakidadunen aurka.

LEAK beharrezkotzat jo du hartutako neurriak bereiztea, Udalak lortu nahi zituen helburuen arabera.

Erdi Aroko Merkatuari dagokionez, neurria onartu zen aparkamendua eskaintzeko egoiliar-txartela erabili ezin zuten herritarrei, Merkatu horrek guneko publikoa okupatu zuelako. Nahiz eta neurria txalogarria izan, Udalak bakarrik eskaini zien herritarrei Artium aparkalekua. Hau TUVISA udal enpresak kudeatzen du eta Udalak ordaintzen dio zerbitzua.

Gabonetako kanpainei dagokienez, neurria onartu zen Gazte On merkatari eta ostalarien Elkartearen eskaerari erantzuna ematearren eta “Gasteizko zabalguneko merkataritzak eta ostalaritzak sustatzea” eta Iradier aparkalekua herritarrek ezagutu eta erabiltzea zuten helburu. TUVISAK kudeatzen du aparkaleku hau ere.

LEAK Udalari eskatu dio balioestea ea merkatu horien alde aritzea, beste batzuen kaltean, interes orokorreko justifikaziorik duen, kontuan harturik Udalak berak azpimarratutako diskriminazioak sortzen dituztela neurri horiek.

Halaber, LEAK proposatu du merkatari eta ostalarien elkarte onuradunak berak ordaintzea hartutako neurriak.



Bi kasuetan, LEAk uste du aipatutako aparkalekuen lehiakide guztiek parte hartu ahal badute neurri horietan, diskriminazioa deuseztatu, Udalarentzat baldintza hobeak sortu eta herritarren hautatzeko aukerak zabaltzen direla.

Dena den, azpimarratu egin behar da neurri horiek ordaintzeko urtero erabiltzen den diru-kopurua 7.000€ ingurukoa izan dela bakarrik eta merkatua ukitu den egunak 12 izan direla iaz (gorako progresioa egon da: 4 egun, lehenengo urtean, eta 12 egun, iaz).

Esteka:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/96_APARCAMIENTOS_VITORIA_web.pdf

Lehiaren Euskal Agintaritzza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.